



BASAURI

Udala • Ayuntamiento



Bandera Berdea

KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA ARLOA

ÁREA DE POLÍTICA CULTURAL Y EUSKERA

0331/2019 DEKRETUA

DECRETO N° 0331/2019

Data: 2019/01/24

Fecha: 24/01/2019

Kultura-politika eta Euskara arloko diru-laguntzak emateko Oinarriak onartu ditu 2019ko urtarrilaren 9ko 0059/2019 Dekretuak —eta 2019ko urtarrilaren 22ko 15 zenbakidun BAOn argitaratu dira—.

Horren harira, Alkatetzak honako hau XEDATU DU, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21. artikulua eta indarreko gainerako legeriak emandako eskumenak baliatuta:

LEHENENGOA: «Gazteria» diru-laguntzari dagozkion gastuak baimentzea, jarraian adierazi bezalaxe:

Partidaren deskribapena Descripción de la Partida	Partida	Erreferentzia	Eragiketa Zk. N° Operación	Zenbatekoa Importe
Transf. arr. IAGEei. GAZTERIAREN SUSTAPENA. T. corr. a ISFL. PROMOCION DE LA JUVENTUD.	72 3341 48199	22019000004	220190000004	5.323,55 €

BIGARRENA: «Gazteria» diru-laguntzaren 2019ko deialdia onestea, Gazteria Eranskinen ezarritakoaren arabera. Bestalde, diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da.

HIRUGARRENA: xedatzea hilabeteko epea egongo dela eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

LAUGARRENA: 2020ko urtarrilaren 31ko data ezartzea zuriketa egiteko epemuga gisa.

Habiéndose aprobado las Bases que regulan la concesión de subvenciones en materia de Política Cultural y Euskera, por Decreto de la Alcaldía 0059/2019 el 9 de enero de 2019, y publicado en el BOB n° 15 el 22 de enero de 2019.

Desde esta Alcaldía y en virtud de las competencias que le otorga el artículo 21 de la Ley 7/85 Reguladora de las Bases de Régimen Local y demás legislación vigente se DISPONE lo siguiente:

PRIMERO: autorizar el gasto para la subvención de «Juventud», conforme al siguiente detalle:

SEGUNDO: aprobar la convocatoria de la Subvención de Juventud de 2019, de acuerdo a lo especificado en el Anexo Juventud adjunto. Y cuyo régimen de concesión es el de concurrencia competitiva.

TERCERO: establecer que el plazo para la presentación de solicitudes será de un mes desde el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

CUARTO: establecer como fecha límite para la justificación el 31 de enero de 2020.



BOSGARRENA: Kultura-politika eta Euskara Arloko 2019ko diru-laguntzen deialdia argitaratu dadila, bai Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez, bai lurralde historikoan zabalkunde handiena duten egunkarietako batean, baita Basauriko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ere.

QUINTO: ordenar la publicación de la convocatoria para la concesión de las subvenciones del Área de Política Cultural y Euskera de 2019, en el Boletín Oficial de Bizkaia a través de la Base de Datos Nacional de Subvenciones y en uno de los diarios de mayor difusión del Territorio Histórico, así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Basauri y en la web municipal.

Basauri, 2019ko urtarrilaren 24a.

Basauri, 24 de enero de 2019.

ALKATEA / EL ALCALDE



Sin. / Fdo: Andoni Busquet Elorrieta



ERANSKINA: GAZTERIA

KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA ARLOA

BALORAZIO BATZORDEAREN OSAERA: Gazteria, Jai eta Kiroletako Informazio Batzordea.

Diru-laguntza lerroa	AISIALDI ETA ASTIALDI ELKARTEAK
Diruz laguntzeko kontseptua	HAURREI ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO AISIALDI ETA ASTIALDI HEZITZAILEKO JARDUERA PROGRAMAK
Aurrekontu-partida	72.3341.48199
Partidaren deskribapena	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK IAGE-EI, GAZTERIA
Zenbatekoa	5.323,55 €
Diru-laguntza prozedura	emateko NORGEHIAGOKA

1. XEDEA:

Astialdi eta aisialdi hezitzaileko elkarteei laguntzea gazteentzako programen eskaintza garatzen.

2. NORI ZUZENDUA:

Basauriko Udaleko Elkarteen Erregistroan izena emanda dauden aisialdi elkarteei, edota udalerriko biztanleei zuzendutako jarduerak edo programak garatzen dituztenei. Hala xedatzen du Oinarri Orokorren 3.3 atalak.

BAZTER UTZITAKOAK:

Ikastetxeak, guraso elkarteak (IGE), ikasle elkarteak eta beste edozein, beren jarduna eskola edo akademia eremuko bada.

3. DIRUZ LAGUN DAITEKEEN JARDUERA:

Ume zein gazteei zuzendutako aisi eta astialdi hezitzaileko programak, Basaurin eginak eta/edo Basauriko gazteekin eginak.

BAZTER UTZITAKOAK:

Basauriko udal diru-laguntzen deialdi barruan, beste diru-laguntza lerro bateko jarduerak bultzatzen dituzten programak.



4. DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:

Eskabidearekin batera, Udal diru-laguntzak emateko Oinarri Arautzaileen 5.1 artikulua jasotako agiri hauexek ere aurkeztu beharko dira:

1. Jardueren proposamena (Jarduerak_Actividades.doc).
2. Aurrekontua (Aurrekontua_Presupuesto.xls).
3. Zuzendaritza Batzordeko kide direnen egiaztagiria, aniztasunaren tratamenduagatik puntuak lortu nahi badira (6 C atala).

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAK:

Deialdian agertzen direnak.

6. BALORAZIO IRIZPIDEAK:

ERAKUNDEARI DAGOZKION IRIZPIDEAK: 10 PUNTU

- Erakunde basauriarrek _____ 10 puntu

PROGRAMARI DAGOZKION IRIZPIDEAK: 53 PUNTU

1.- Programaren interes soziokulturala eta udalerrian duen eragina: 23 puntu

Programaren interes soziokulturala eta udalerrian duen eragina:	23 PUNTU
Udalerriko haur eta gazteen aisialdi-beharrizanei erantzutea	7 puntu
Jarduerak udalerrian duen eragina	3 puntu
Jasotzaileen edo parte-hartzaileen kopurua	7 puntu
0-49..... 2 puntu	
50-99..... 4 puntu	
100 baino gehiago..... 7 puntu	
Euskal kultura eta ohiturak sustatzea	6 puntu

2.- Proiektuaren kalitate teknikoa eta aurreko urteko aurrekontua bat etorri izana aurkeztutako proiektuarekin. _____ 15 puntu

Metodologia, ebaluatzeko moduak, adierazleak, giza baliabideak, baliabide materialak eta publizitatea balioetsiko dira. Horiekin batera, aintzat hartuko dira lortu beharreko xedeak eta programaren iraupena.

Eskabideek, atal honetan, 5 puntu lortu beharko dituzte, gutxienez.

Gehienez ere lor daitezkeen puntuazioa, zuritu gabeko portzentajearen arabera (zeinaren ondorioz aurreko urteko diru-laguntza, zati batean ala osorik, itzuli behar izan den)



BASAURI

Udala • Ayuntamiento



Bandera Berdea

% 95 baino gehiago zuritu gabe	5 puntu
% 60 baino gehiago eta % 95 baino gutxiago zuritu gabe	7 puntu
% 30 baino gehiago eta % 60 baino gutxiago zuritu gabe	10 puntu
% 8 baino gehiago eta % 30 baino gutxiago zuritu gabe	13 puntu

3.- Finantza-ahalegina _____ 15 puntu

Gastu eta diru-sarrera totalen arteko proportziozkotasuna. Era berean, finantza ahalegintzat hartuko da aurrekontuan jasotako gastuaren eta eskatutako diru-laguntzaren arteko aldea. Balioetsiko dira proposatutako programa edo jarduera aurrera eramateko finantzaketa-iturri eta baliabideak bilatzeko egindako ahaleginak.

<i>Kaudimena (lortutako baliabide ekonomikoak)</i>	15 puntu
Aurrekontuaren % 1 eta % 20 artean	2,5 puntu
Aurrekontuaren % 21 eta % 40 artean	5 puntu
Aurrekontuaren % 41 eta % 60 artean	7,5 puntu
Aurrekontuaren % 60 baino gehiago	15 puntu

ANIZTASUNAREN TRATAERA:

22 PUNTU

<i>Berdintasuna eta emakumeen parte-hartzea sustatzea</i>	6 puntu
- <i>Emakumeek programan parte hartzea sustatzeko jarduera zehatzak egitea. Proiektuan jasota agertu behar dira. Adibidez: hizkuntza eta irudi ez-sexista erabiltzea, eta abar.</i>	4 puntu
- <i>Emakumeak egotea Zuzendaritza Batzordean</i>	2 puntu
<i>Desgaitasunak dituzten pertsonak jardueretan parte hartzeko ekintzak aurreikustea. Proiektuan jasota agertu behar dira.</i>	2 puntu
<i>Etorkinak gizarteratzeko ekintzak aurreikustea. Proiektuan jasota agertu behar dira. Adibidez: jardueren irudian edo zabalkunde-kanpainan kulturartekotasun irizpideak txertatzea...</i>	2 puntu
<i>Hizkuntza-normalizazioan (ahozkoan zein idatzizkoan) parte hartzea</i>	12 puntu
<i>Jardueretan euskara eta gaztelania pare-parean erabiltzea, edota euskarari lehentasuna ematea</i>	6 puntu
<i>Jardueretan euskara bakarrik erabiltzea</i>	12 puntu

BESTE BATZUK: 15 PUNTU

Udal jardueretan edota udalerriko beste elkarteek Udalarekin lankidetzan antolatutako horietan laguntzea _____ 15 puntu

Udal jardueretan laguntzea	15 puntu
Parte-hartze edo lankidetzak bakoitzeko (gehienez ere, 15 puntu)	3 puntu

Lankidetzak proiektuan zerrendatuta agertu beharko dira, eta bakar-bakarrik balioetsiko dira diru-laguntza espezifikorik jaso ez duten parte-hartze edo lankidetzak proposamenak.

Edozelan ere, Atalak egiaztatu ahal izango du aitortutako lankidetzak benetakoak izan direla.



7. ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Udal diru-laguntzak emateko Ordenantzaren 8. artikuluan ezarritakoak; bereziki, diru-laguntza eman duen organoaren aurrean egiaztatzea jarduera egin dela, eta diru-laguntzaz gozatzeko ezarritako helburua bete dela.

8. HIRUGARRENAK AZPIKONTRATATZEA:

Udal diru-laguntzak emateko Ordenantzaren 21. artikuluan ezarritako baldintzetan egingo da.



ANEXO JUVENTUD

ÁREA de Política Cultural y Euskera

COMPOSICIÓN DE LA COMISIÓN DE VALORACIÓN: Comisión Informativa
Juventud, Fiestas y Deportes

Línea de Subvención	ASOCIACIONES DE OCIO Y TIEMPO LIBRE
Concepto Subvencionable	PROGRAMAS DE ACTIVIDADES DE OCIO Y TIEMPO LIBRE EDUCATIVO DIRIGIDOS A INFANCIA Y JUVENTUD.
Partida Presupuestaria	72.3341.48199
Partida Descripción	T.C. A ISFL JUVENTUD
Importe	5.323,55€
Régimen de Concesión	CONCURRENCIA COMPETITIVA

1. **OBJETIVO:**

Facilitar a aquellas asociaciones de ocio y tiempo libre educativo que puedan desarrollar una oferta de programas para jóvenes.

2. **DIRIGIDO A:**

Grupos y/o Asociaciones de Tiempo Libre inscritas en el registro municipal de Asociaciones del Ayuntamiento de Basauri, o que desarrollen actividades/programas que tengan como destinatarias personas residentes en el mismo, tal y como se recoge en el Apartado 3.3 de las bases generales.

EXCLUSIONES:

Centros escolares, Asociaciones de padres y madres (AMPAS), Asociaciones de estudiantes y cualquier otra que su actividad esté centrada en el ámbito escolar y/o académico.

3. **ACTIVIDAD SUBVENCIONABLE:**

Programas que promuevan el tiempo libre educativo y de ocio dirigidos a infancia y a la juventud, realizados en Basauri y/o con jóvenes de Basauri.

EXCLUSIONES:

Programas que promuevan actividades que sean objeto de otras líneas de subvención dentro de la convocatoria municipal de subvenciones del Ayuntamiento de Basauri.



4. DOCUMENTACIÓN ESPECÍFICA:

La Solicitud deberá ir acompañada de la documentación requerida en el Art. 5.1. de las Bases Reguladoras para la Concesión de Subvenciones Municipales:

1. Propuesta de Actividades (Jarduerak_Actividades.doc)
2. Presupuesto (Aurrekontua_Presupuesto.xls)
3. Certificado de personas integrantes de la Junta Directiva, en caso de optar a los puntos por tratamiento de la diversidad (Punto 6.C) .

5. PLAZOS DE PRESENTACIÓN:

El que aparezca en la convocatoria.

6. CRITERIOS DE VALORACIÓN:

CRITERIOS CORRESPONDIENTES A LA ENTIDAD: 10 PUNTOS

- Asociación Basauritarra _____ 10 puntos

CRITERIOS CORRESPONDIENTES AL PROGRAMA: 53 PUNTOS

1.- Interés socio cultural del programa e impacto en municipio: 23 puntos

Interés socio-cultural del programa e impacto en el municipio	23 PUNTOS
Respuesta a las necesidades de ocio juvenil e infantil en el municipio	7 puntos
Repercusión de la actividad en la imagen del municipio	3 puntos
Número de personas destinatarias o participantes. De 0 a 49.....2 puntos De 50 a 99.....4 puntos Más de 100.....7 puntos	7 puntos
Fomento de la cultura y tradiciones euskaldunes	6 puntos

2.- Calidad técnica del proyecto y adecuación presupuesto del año anterior al proyecto presentado. _____ 15 puntos

Se valorará la metodología, las formas de evaluación, indicadores, recursos humanos, materiales y publicidad así como los objetivos previstos a alcanzar y la duración del programa.

Las solicitudes deberán alcanzar el umbral mínimo de 5 puntos en este apartado.

Puntuación Máxima en función del porcentaje no justificado,



que haya dado lugar a la devolución total o parcial de la subvención del año anterior	
Más del 95% sin justificar	5 puntos
Más del 60% y menos del 95% sin justificar	7 puntos
Más del 30% y menos del 60% sin justificar	10 puntos
Más del 8% y menos del 30% sin justificar	13 puntos

3.- Esfuerzo financiero _____ **15 puntos**

Proporción entre gastos totales e ingresos. Se considerará asimismo esfuerzo financiero la diferencia entre gasto presupuestado y el importe de subvención solicitado. Se valorará el esfuerzo por la búsqueda de recursos y fuentes de financiación para el desarrollo del programa o actividad propuesta

<i>Solvencia (Recursos económicos conseguidos)</i>	15 Puntos
Entre el 1% y el 20% del presupuesto	2,5 puntos
Entre el 21% y el 40% del presupuesto	5 puntos
Entre el 41% y el 60% del presupuesto	7,5 puntos
Más del 60% del presupuesto	15 puntos

TRATAMIENTO DE LA DIVERSIDAD: 22 PUNTOS

<i>Promoción de la igualdad y participación de mujeres</i>	6 puntos
- <i>Por la realización de actividades concretas para potenciar e impulsar la participación femenina en el programa. Deben aparecer definidas en el proyecto. Ej: Utilización del lenguaje e imagen no sexista etc...</i>	4 puntos
- <i>Presencia de mujeres en la junta directiva</i>	2 puntos
<i>Por contemplar acciones para la integración de las personas con discapacidad . Deben aparecer definidas en el proyecto</i>	2 puntos
<i>Por contemplar acciones para la integración de la inmigración. Deben aparecer definidas en el proyecto. Ej: Incluir criterios de interculturalidad en la imagen o en la difusión de las actividades...</i>	2 puntos
<i>Por implicación en la normalización lingüística (oral y escrita)</i>	12 puntos
<i>Uso paritario o preferente del euskera en el desarrollo de las actividades</i>	6 puntos
<i>Uso exclusivo del euskera en el desarrollo de las actividades</i>	12 puntos

OTROS: 15 PUNTOS

Colaboración con actividades municipales o con aquellas que organicen otras Asociaciones del municipio en colaboración con el Ayuntamiento _____ **15 puntos**

Por colaboración con actividades municipales	15 puntos
Por cada participación o colaboración (hasta un máximo de 15 puntos)	3 puntos

Las colaboraciones deberán aparecer relacionadas en el proyecto y sólo se valorará la participación y/o propuesta de colaboración en actividades para las que no hayan recibido subvención específica.



El Departamento podrá, en todo caso, contrastar la veracidad de las colaboraciones declaradas.

7. OBLIGACIONES DE LOS BENEFICIARIOS:

Las establecidas en el Artículo 8 de la Ordenanza para la concesión de subvenciones municipales y en especial la de justificar ante el órgano concedente la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determina la concesión o disfrute de la subvención

8. SUBCONTRATACIÓN CON TERCEROS:

En los términos establecidos en el Artículo 21 de la Ordenanza para la concesión de subvenciones municipales.